

3

Ibilbide motza

PR-A 52

JAUNDEL MENDIRAKO IBILBIDEA

Seinaleztapena



LEGENDA

Irteera	Hilerria
Helmuga	Interes lekua
Eraikin erlijiosoak	Kobazuloa





ARABAKO MENDIALDEKO ibilbide motzen sarea

FITXA TEKNIKOA

	Distantzia	4,2 km
	Denbora	2h 15'
	Zailtasuna	Erreza
	Ibilbide mota	Zeharkakoa

Ibilbide eder eta samurra da honako hau, osorik basoaren gerizpean iragaiten dena. Ibilbide hezigarri honetan zehar inguruari buruzko 20 interpretazio-panel txiki baino gehiago aurkituko ditu bidaztiak



www.arabakomendialdea.eus

Arabako Mendialdeko
Kuadrilla
Gasteiz - Lizarra errepidea, 7
01110 Santa Cruz de Campezo
(ARABA)

945405424

arabakomendialdea@arabakomendialdea.eus

Eskualdeko turismo bulegoa
Aintzinako Vasco-Navarro Trenaren
ibilbide berdearen Interpretazio Zentroa
01128 Antoñana
(ARABA)

945410577



LAGRAN. Bidaztia A-3130 eskualde-errepideari jarraitu behar zaio Urizaharrarako norabidean. 36. puntu kilometrikora heldu baino 100 metro lehenago, errepide hori utzi eta eskuinaldean ureztatzeko hartune baten parean dagoen lur- bide bat hartu behar du **1** Segidan, bidaztiak zurezko kartel bat aurkituko du, inguru horretako mendi-ibili laburreko bide guztien krokis bat duena.

Bidea erkametz ugari dituen pagadi batean barnatzen da. Laster, bidaztia hasiko da Arabako Mendialdeko flora, fauna eta ohiturak azaltzen dituzten hainbat interpretazio-panel aurkitzen.

Bidea gero eta gehiago igotzen doa. Bide nagusitik (orain harzola sendoa duena) aurrera jarraitu behar da beti, hainbat desbideratze atzean utzita.

Iparraldeko elorri zuriari buruzko kartelaren parean bidebanatze bat dago, ezkerreko adarretik jo behar delarik **2** Hortik aurrera, bidaztiak basoaren eta horren biztanleen sekretuak argitzen dituzten beste hainbat kartel aurkituko ditu. Basoaren gerizpean ibiliz, beste bidegurutze batean kokaturik dagoen laharriari buruzko kartelera ailegatzen da. Puntu horretan, geziak adierazten duen bezala, eskuinera jo behar da. Metro gutxira, ezpeldi trinko batek oihanpe osoa estaltzen du, ia zeharkatu ezin daitekeen geruza berde eta dirdiratsua eratuz. Kartel batek azaltzen du baso hori maita- garrien ipuinetako basoa dela. Eta arrazoa du.

Berriz ere, bidegurutze baten parean beste kartel bat dago, kasu honetan garrapoari buruzkoa. Pago batean margotutako gezi gorri handi batek adierazten du ezkerreko jo behar dela.

Bidaztia apurka-apurka igotzen doa, kartelak irakurritz entretentzen den bitartean. Gorostiarri buruzko kartelaren ondoan, bideak ezkerretik datorren beste bide nagusi batekin bat egiten du **3** Aurrera jarraitu behar da, goroldioz estalitako pagadi harritsu eta hostotsu baten gerizpean.


Pixka bat gorago, okil berdeari buruzko kartelaren parean, beste bidegurutze bat dago, eta zuzen jarraitu behar da eskuineko adarra atzean utzita. Hortik aurrera, bidea estuago egiten da, harkaitz-tarteren bat saihestuz igotzen doan bidexka bihurtuz.

Bidexka mehar hori ia ikusezin egiten da puntu batzuetan, hots, lapiazek eta zuhaixkek ibiltzea zertxobait oztopatzen duten puntuetan. Hala ere, ondoz ondoko kartelei esker, ibilbideari erraz jarrai dakioke.

Aurrerago, basoan lursail lau bat dago. Bertan, kartel batek azaltzen ditu mendiko herri-aprobetxamenduak. Hortik oso hurbil eta ondo seinalaturik lortorra dago.

Jaundel mendiko gailur harritsu eta meharretik **4** ez du bidaztiak panoramika zabal bat kontenplatzeko aukerarik izango, gailur osoa baso trinkoz inguratutako baitago. Harkaitzen artean, kareharrizko labarretan egon ohi diren espezieak hazten dira, hala nola hurritza, gurbea, astigarra, etab. 1977ko Gasteiz mendi-elkartearen mendi-gutunontzia.

PROFILA



ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava